

Xahartzearekin, izpiritua zimurtzen da aurpegia baino gehiago.

(Montaigne)

Bakea bai
elkartea

Jean Aniotz-behere auzapeza-
ren ongi etorria, aldean
zituela Argitxu Noblia eta
Jean-Pierre Etcheverry erro-
torea



KARKAN

Hitz batzu galtzen dira ez go erabiltzen. Eta ez dugulakotz gehiago heier galdua edo desagertua arazten dutelakotz...

BIZILEKU BAT DENENTZAT



Azken urte hautan Euskal Herrian, bizileku baten ukaitea arazo larria bilakatu da, etxebizitzaren prezio gero eta handiagoaren gatik bereziki. Teilatu bat presuna batentzat, familia batentzat, enpresa batentzat, oinarritzko eskubide bat da, batzuri gaur egun errefusatu zaiena, bereziki gazte askori. Horri buruz badira urrats baikorrak bideratzen ari direnak, hala nola Euskaldun Gazteriak Garazi aldean deraman SCI proiektua eta ere **Etxalde** elkarte berriak deraman egitasmo pizkorra.

Xiberutik abiatutako proiektua

Urte bat eterdi huntan ari da lanean Etxalde elkarte, partaide dauzkala Ipar Euskal Herriko ekonomia saileko eragile batzu (Herrikoa, Hemen, Sokoia, Estia-ko kide eta bertze), **Jean Louis Sallaberry** ofizialea buru. Konkretuki, Etxalde elkarteak nahi lituzke egoitza batzu beretu, etxe agentzia askoren haztaparretatik kenduz, tokian tokiko jendeari eta bereziki gazteari prezio onestean alokatzeko

xedearekin. Etxalde elkarte litaik e egoitza horien betirako jabea, bere araudien arabera ez lezakeelarik ontasun badeo bertze sal. Horrek segurta lezake beraz bizilekuaren iraunkortasuna. Etxalde-k berak dion bezala, desmarta hori da "dirujokorik gabeko eta elkarte-sunezko inizatiba, molde iraunkorrear, etxeak alokatzeko".

Hemendik 2012ra, bost urtez beraz, Etxalde-k nahi lituzke 15 proiektu bideratu (3 proiektu urtean). Badu jadanik egoitza bat erosia Maulen, hiru bizilekutakoa (180.000 euro). Beste bat erosigo du abendo ondarrean, beti Maulen, hiru bizileku eta komertsio batekin (300.000 euro). Bertze dozier batzu ere ikertzen ari ditu. Xiberutik abiatu da proiektua, han baitira Ipar Euskal Herri guziko prezio apalenak, etxebizitzari doakionez. Mementoko, kostaldean prezioak goregiak dira proiektu baten gauzatzeko. Lapurdi barnealdean eta Baxenafarroan aldiz balitaik urrats bat edo bertzeren gorpuzteko ahala.

Hortarako haatik, jendearen laguntza ezinbestekoa du Etxalde-k, bai eskukaldi praktikoan (teknikari, ofiziale, eskulangile, xantieren segitzaile, informazio emaile...) bai diru ekarpenean (50.000 euro urtean). Euskal Herriari atxikia den edonork ekar lezake bere harri ttipia, eskukaldi ala diru eskaintza baten bidez (20 euro, 50, 100 ala gehiago), helbide hontarat: **ETXALDE** elkarte, Haltsuko bidea 64480 LARRRESORO. Desmarta hortan urrunago joan nahi lukeen norbait Etxalde elkartearen partaide bilaka laiteke, 500 euroren ekarpenarekin. (Argitasun gehiagorentzat: tel 06 23 16 45 30 edo contact@etxalde.org, eta ere www.etxalde.org).



Etxalde elkarteko kide batzu: Chantal Torre, Beñat Jauregui, Beñat Etchebest, Jean Paul Bonnin eta Felipe Tapia